
Egile eta Editoreen Elkarteak (SGAE) *eta* ***SGAE Fundazioak Flamenkoaren III. Paco de Lucía SGAE Sariketan parte hartzeko deialdia egin dute,***
genero honetako musikagileen sorkuntza bultzatu eta aintzatesteko asmoz



FLAMENKOAREN III. PACO DE LUCÍA SGAE SARIA

2025-26

OINARRIAK

01 SGAEko kideek parte hartu ahal izango dute, adin-mugarik gabe, flamenkoaren generoko lanekin.

02 Parte-hartzaile bakoitzak **jatorrizko obra argitaragabe bakarra aurkeztu beharko du**. Obrak jatorrizkoa izan behar duenez, ez dira onartuko besteren obren zatiak erabiltzen dituzten obrak. Besteren obra-zatiak dituzten obrak lehiaketatik kanpo geratuko dira.

Lehiaketara aurkeztutako obra ezin da izan aurrez estreinatutakoa, publikoaren eskura jarritakoa edo inola ere zabaldutakoa. Besteak beste, ezin izango dira aurkeztu obra hauek: ikus-entzunezko euskarrietan edo euskarri fonografikoetan erabiliak izan direnak; Internet bidez jendearen eskura jarri direnak; kontzertuetan jotakoak; ikus-entzunezko lanetan sinkronizatutakoak; estatuko edo nazioarteko beste lehiaketa batean sarituak izan direnak.

Sarirako aurkezten diren obrek instrumentalak bakarrik izan beharko dute.

03 Musikagile batek baino gehiagok idatzitako obrak onartuko dira, hau da, egilekidetzan idatzitakoak. Egilekidetzan idatzitakoak badira, egile guztiek izan beharko dute SGAEko bazkide, eta oinarri hauen lehen puntua bete. Kasu horretan, eta egile batek baino gehiagok sortutako obra bat saritua izanez gero, sariaren diru-kopurua horien guztien artean banatuko da, zati berdinetan, egilekideen artean bestelako akordiorik ez badago. Akordio hori SGAE FUNDAZIOARI jakinarazi beharko zaio, guztiek sinatutako idazki baten bidez.

04 Obrak konpositoreek beraiek (beste musikari batzuek lagunduta edo ez), edo SGAE FUNDAZIOAK izendatutako interpreteek jo beharko dituzte.

05 **Solo**, **duo** edo **trioentzako** obra instrumentalekin lehiatuko da, honako instrumentu hauek nahi bezala konbinatuta:

Pianoa edo teklatua (interprete bakarra)
Bateria (interprete bakarra)
Perkusioa
Txaloak
Kontrabaxu akustikoa edo Baxu elektrikoa (interprete bakarra)
Saxoa
Tronpeta
Txirula

Obren **iraupena** gutxienez **lau minutukoa** izango da, eta gehienez **zazpi minutukoa**. Baldintza hori zorrotz kontrolatuko dute antolatzaileek, lanak Epaimahaiari eman aurretik.

06 Sariak fase hauek izango ditu:

a) Obrak aztertzea, eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu dela eta oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko. Lehiakideak lehiaketatik kanpo geratuko dira, baldin eta dokumentazioa oinarri hauetan ezarritakoaren arabera aurkeztu ez badute edo ezarritako iraupen-irizpideak bete ez badituzte.

b) Epaimahai batek obrak aztertzea (oinarri hauetan deskribatzen da horien osaera) eta 8 lan finalistak aukeratzea.

c) Obra finalistak aurkezteko azken kontzertua. Kontzertu hori Sevillako Central Antzokiko B aretoan izango da 2026ko otsailaren 4an.

07 Parte hartzeko, honako hauek bidali beharko dituzte lehiakideek:

- **Izena emateko orria** behar bezala beteta eta sinatuta.
- Obraren zuzeneko interpretazioa, MP3 formatuan **grabatuta.**
- Parte-hartzailearen edo parte-hartzaileen **curriculum vitae laburra.**
- Obra SGAEn erregistratuta dagoela adierazten duen fitxa edo erregistratzeko izapidean dagoela adierazten duen **deklarazioa.**
- **NAN**aren edo **pasaportearen** fotokopia.

08 Lanak aurkezteko epea **2025eko urriaren 21etik azaroaren 28ko 23:59ra** izango da, esklusiboki bide telematikoz, helbide honetara bidalita: **smoralg@fundacionsgae.org**.

09 **Epaimahaiaren analisiak** honako hauek hartuko ditu kontuan: **obrak sortzeko originaltasuna, obren arriskua eta kalitatea.**

10 Onartutako obra guztien artean, epaimahai batek obra finalistak aukeratuko ditu eta sariak emango ditu. Epaimahaia SGAEko Flamenko Lantaldeak eta SGAE Fundazioak izendatuko du, eta bost (5) kidek, flamenkoaren arloko musikagile, musikari eta aditu nabarmenek osatuta egongo da. Batzorde horretan ezin izango dute parte hartu SGAEko Flamenko Lantaldeko kideek, ez eta SGAE Fundazioaren Patronatuko kideek ere.

Epaimahaiaren erabakia 2025eko abenduaren 31 baino lehen jakinaraziko da.

11 **Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da**, eta sariak banatuko dira oinarri hauetan datorrenaren arabera. Epaimahaiak lehiaketako sari guztiak edo batzuk eman gabe utzi ahal izango ditu. Era berean, Epaimahaiak lau sari nagusietako bat ex aequo (partekatua) ematen badu, irabazleek sari horren zenbatekoa jasoko dute, eta kopurua **irabazleen artean banatuko da zati berdinetan.**

12 **Lau sari nagusietako** bat jasotzen duten parte-hartzaileek honako diru-kopuru hau jasoko dute, eurotan:

- Lehen saria **6.000** euro
- Bigarren saria **3.000** euro
- Hirugarren saria **1.500** euro
- Laugarren saria **1.200** euro

Espainian indarrean dagoen legeriaren arabera, sariek zergak ordaindu beharko dituzte, bai Espainiakoak, bai atzerrikoak. Berdin dio irabazleak Espainiako lurraldean bizi edo kanpoan bizi.

13 Saria jaso duten obren egileek konpromisoa hartuko dute erakustaldi, ekitaldi publiko edo bestelako komunikazio-ekintzetan, obrek "Flamenkoaren Paco de Lucía SGAE Saria" jaso dutela aipatzeko.

14 Epaimahaiak erabakia hartu eta hurrengo hogeita hamar (30) egunera arte bakarrik gordeko dira sarituak izan ez diren bidalitako obrei buruzko agiriak. Epe horretan, berariaz eskatutako itzulketak bakarrik burutuko dira. Adierazitako epea igarotakoan, dokumentazioa eta materialak suntsitu egingo dira.

15 Parte-hartzaileek SGAE eta SGAE Fundazioa erantzukizun orotatik salbuesten dute, baldin eta beren obraren bidez plagiorik edota jabetza intelektualaren arloan indarrean dagoen lege-urraketarik egingo balute.

16 Lehiakideek, lehiaketan parte hartzen duten heinean, sariaren oinarri hauek bete-betean onartzen dituzte, baita epaimahaiaren erabakiak ere. Erreklamaziorik edo gatazkarik izanez gero, parte-hartzaileek eta sariaren antolatzaileek Madril hiriburuko (Espainia) auzitegien jurisdikzioari men egin beharko diote, eta gaztelaniazko testua hartuko da ofizialtzat.

17 Parte-hartzaileek euren borondatez emandako datu pertsonalak SGAE Fundazioaren ardurapean dagoen fitxategi batean sartuko dira, eta Sariaren deialdi honetan eskatzailearen parte-hartzea kudeatzeko soilik erabiliko dira. Datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidearen jabe denak datuok ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta horien aurka egiteko eskubideak ditu, bai eta datuok eramateko eskubidea eta erabaki indibidual automatizatuen objektu ez izateko eskubidea ere. Eskubideak gauzatzeko hona idatz dezakezu: SGAE Fundazioa, Zerbitzu juridikoei zuzendua, Bárbara de Braganza 7, 28004, Madril. Idazkian izena eta abizenak adierazi beharko dituzu, gauzatu nahi duzun eskubidea zein den adierazi eta eskubide hori gauzatzeko arrazoia azaldu. Idazkiarekin batera, NAN/AIZ edo pasaportearen fotokopia aurkeztu beharko da. SGAE Fundazioak interesdunak emandako datuak egiazkotzat eta gaur egungotzat hartzen ditu. Datuak aldatuz gero, interesdunak berehala jakinarazteko betebeharra du.



MATERIALAK BIDALTZEKO
SGAE Fundazioa – Musika Saila
smoralg@fundacionsgae.org

INFORMAZIOA
SGAEren ordezkaritza nagusiak eta egoitzak, bai Espainian, bai atzerrian (ikusi helbideak hemen: **www.sgae.es**)

Interesdunek era guztietako kontsultak egin edo oinarriei buruzko informazio gehiago lortu ahal izango dute helbide hauetan

SGAE FUNDAZIOA
informacion@fundacionsgae.org
www.fundacionsgae.org
www.sgae.es

fundación sgae fundazioa

Junta de Andalucía
Consejería de Turismo, Cultura y Deporte
Agencia Andaluza de Instituciones Culturales

Fundación Paco de Lucía



FLAMENKOAREN III.
PACO DE LUCÍA
SGAE SARIA
2025-26

FLAMENKOAREN III. PACO DE LUCÍA SGAE SARIA
2025-26

IZENA EMATEKO ORRIA*

OBRAREN IZENBURUA .....

FORMATUA (MARKATU X BATEKIN) Soloa ☐ Duoa ☐ Trioa ☐

DATU PERTSONALAK

Izen-abizenak* .....

SGAEko bazkide zenbakia .....

Helbidea .....

Posta kodea .....

Herria .....

Probintzia / Herrialdea .....

Telefonoa(k) .....

Helbide elektronikoa .....

AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA

CV ☐ MP3 grabaketa ☐ Obra SGAEn erregistratuta dagoela adierazten duen fitxa edo SGAEn aurkeztutako obra erregistratzeko izapidean dagoela adierazten duen deklarazioa ☐

NANaren edo pasaportearen fotokopia ☐

(*) Obrak egile bat baino gehiago badu, fitxa honen eranskin edo fotokopia bat erantsi beharko da, bakoitzak bere datuak beteta.

SINADURA

Partaidetza-fitxa hau sinatuta, egileak baimena ematen dio **SGAE Fundazioari** bere datu pertsonalak erabiltzeko, lehiaketan den artean beharrezkoak diren kudeaketa guztiak egin ditzan.

SGAE Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakundea da, Espainiako zuzenbidearen arabera eratua fundazio baten forma juridikoarekin, eta Fundazioen Erregistroan behar bezala inskribatuta dago 314 zenbakiarekin. Bárbara de Braganza kaleko 7. zenbakian du helbide soziala (28004 Madril), eta G-81624736 zenbakiko IFK du.

Haren helburuen artean daude, besteak beste, musika-lanak eta horien egileak (konpositoreak eta abesti-idazleak) sustatzea, obra horiek balioesteko eta zabaltzeko kultura-sustapena egitea eta **SGAE**ko bazkideen eskubide moralak defendatzea. Horretarako, besteak beste, laguntzen, sarien, lehiaketen, jaialdien eta egile-eskubideen prestakuntza- eta hedapen-jardueren deialdia egiten du, bai eta horiek gauzatzeko beharrezkoak diren kudeaketa- eta administrazio-egintza guztiak ere.

LEHIAKIDEAK ADIERAZTEN DU agiri HAU sinatuta **JAKINAREN GAINEAN EMATEN DUELA** honetarako **BAIMENA**: bertan emandako datuak SGAE Fundazioaren fitxategi batean sartzeko. Fitxategi hori soilik erabiliko da lehiaketa honetako parte hartzea kudeatzeko eta SGAE Fundazioaren jarduerari buruzko aldizkako informazioa bidaltzeko.

Formulario honekin, **BERARIAZ ONARTZEN DUT** nire datuak helburu horietarako erabiltzea. Era berean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 EB Erregelamenduaren arabera (pertsona fisikoak babesteko datu pertsonalen tratamenduari buruzkoa), eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa aintzat harturik, **BADAKIT** eskubidea dudala datuen aurka egiteko, datuetara sartzeko, datuak mugatzeko, ezabatzeko, zuzentzeko eta eramateko eta erabaki indibidual automatizatuen xede ez izateko. Horretarako, idatzi bat bidali behar dut nire izen-abizenekin, helbidearekin eta NANaren fotokopiarekin, eta erabilitako eskubidea eta idatziaren motiboa azaldu, helbide honetara: **informacion@fundacionsgae.org**. Era berean, **BADAKIT** erreklamazioak aurkez ditzakedala Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan.

..... andrea/jauna